

”tolosan behar dela...”

Zenbait urtetik honakoan egin ez duen euskal kultur-aldi bikain bat eratu dute aurtengo maiatzean Tolosan. Hamabostaldi honen oihartzuna zabal-luzea izan da, eta gure aldizkariak ere jaso nahi luke haren berri labur bat. Honegatixe urretatu gara Tolosaraino.

Gure artean euskal asteak duten ohi-tura piska bat hautsiaz, oraingoan hamabostaldi osoa antolatu dute tolosarrek euskal kultura betikoa eta berri-tua jendeari ezagutarazteko. Eta esan beharra dago, ederra gertatu dela ekin-aldi luze hau.

Nolabait laburtzeko, Hamabostaldia hiru sailetan banatu genezake: hitzaldia, erakusketak eta jaialdiak. Sail bakoitzak izan du bere eginkizun berezia, jende mota desberdinen kezkei erantzunaz.

HITZALDIAK

Lehenen eguneko, hau da, maiatza-ren 6-ko Joan San Martin-en hitzaldia ematerik izan ez bazen ere, gainerako izendatutako egunetan eman zen mintzaldia.

Astelehenean, hilaren 8-an, nekazariei eskaini zitzaien hitzaldia: Andoni Leikuona jaunak EUSKAL BASERRIAREN GEROAZ hitzegin zuen. Han izan ginenok ikusi genuenez, mintzaldia benetan jakingarria eta gure baserritarrentzat zer-pentsarik eman zuena. Baina... baserritarrik ez zen ia hitzaldira agertu. Eta esan beharra dago: hori, ez zen gertatu jakin ez zutelako. Gipuzkoako irratietatik esan zitzaien, aurreko egunetan kale eta herrietan milaka horri zabaldu zituzten antolatzaileek, eta egun berean eta bete-betea zegoen azokan ere eman zen hitzaldiaren berri. Baina gure nekazariak ez entzun egin

zuten... Zergatik? Erantzuna nahiko misteriotsua izanena litzake, edo-ta sakonera joan beharko genuke arrazoi bila, eta hori ez da kronika soil honen egin-beharra.

Euskal poesiari eskaini zitzaion beste hitzaldi bat. Andu Lertxundi zarautzarrek hitzegin zigun XX mendeko euskal poesiaz. Uste dudanez, jardunaldia nahiko bizia gertatu zen, izan ere ez bait zen pentzaketa hutsa izan. Poesia musikaturik eman zitzaigun, Manolo Urbietta, Xabier Aranburu eta Peillo M. Zabala-ren laguntzaz. Zarautzik Anjel etorri zitzaigun eta Donostiatik Antxon Varverde, poesiok kantatzera.

Euskal arte plastikoa eta gaurko kulturaren arazoaz Joxe Mari Larramendik ekin zion. Sakona eta euskera ederrekoa hitzaldi hauxe! Jakingarriak gertatu zitzaizkigun hitzaldi ondoko eztabaidako ideiak.

Hilaren 13-an, larunbatez, Joxe M. Barandiaran etorri zen euskal lehen gizonaz berak hainbeste dakienetik zerbait agertzeri. Bere guziak bezala, jakinduriaz eta zuhurtziaz jantzitako mintzaldia egokitu zen.

ERAKUSKETAK

Nere ustez, hauetxek izanzen lirake Tolosako Hamabostaldi honen agerkitunik bereizgarrienak. Debako Arte Lantokiak bere lanen erakusketa bat jarri zuen San Frantzisko-ko atarian, eta, bidebatez, haurrentzat Espresso Jardunaldiak eratu zituzten han bertan. Nahi zuten nexka-mutil guziek har zezaketen parte. Irekita egon zen bitartean beti jendez beterik ikusi izan genuen elizako arkupe hura. Bide honetatik aurrera jarraitzeko eskatuko genieke debatarroi.

EUSKAL ARTEAREN TOLOSAKO IERAKUSKETA izan da Hamabostaldiko gertakizunik entzutetsuena, zalan-tzarik gabe. Izan ere ez da txantxetakoia izan Erakuste hau. 36 artistek agertu dituzte beren lauki eta irudiak; 68 obra izan dira. Nolabait esateko, orain guti hain aintzatua izan den 50 urtetako pintura-erakusketa haren jarraipena izan da hau. Antologia hau erabat osoa izan ez baldin bada ere, orain artean egin den gaurko artisten antologiarik biribilena izanen litzake, Barakaldokoa beste era batera egin bait zen.

Zinemak ere izan zuen bere toki Hamabostaldian: **PELOTARI** eta **AMA LUR** filmak eman ziren.

Liburu Azokak ere toki apartekoa izan zuen. Dakigunez, euskal argitaldariai nahiko kontentu gelditu zitzaizkigun. Izan ere, Azoka hauek ez bait dute beti suerte bera izaten egin ohi diren guzietan. Nahiz eta hasera batetan salmenta eskasa izan, inguru herrietatik igande arratsaldean etorri zirenek poliki erantzun zuten. Tolosa inguruari esker, Tolosari berari baino gehiago (dena esan behar da), liburu eta diska-ren azoka egoki joan zen.

JAIALDIAK

Hemen sartu beharko ditugu abesti jaialdiak, dantzariena eta bertsolariena. Bi abesti jaialdi eta bi dantzari jaialdi izan dira. 6-an Lete-Iriondo, Pantxo eta Peillo; 13-an OSKARBI eta GUK taldeak. 14-an hamar bat dantzari talde izan ziren Beotibar-en. Egun eta igande ederra huraxe. Eta Lasarteko ERKETZ taldeak ikuskizun ona eman zuen 20-an bere Euskal Folklore Jaialdiarekin.

Eta, azkenik, gogora dezaizuedan Ondarruako KRESALA TALDEAK eskaini zigun "Mariñelak". Lan gaitza egin dute benetan ondarrutar hauek ikuskizun miragarri hau antolatzeko. Ikus-tekoa da "Mariñelak" hau!



EGUNAK

Tolosako Hamabostaldiaren eratzailerek egun bakoitza euskal kulturaren langile diren zenbait laguni eskaini diote. Halanola, Euskal Idazlearen Eguna, Euskal Artistarena, Nekazariena, Poetarena, Zinemarena, Bertsolariarena, Dantzariarena, Antzertiarena izan dira.

Honela, nolabait ere, Tolosak egunean-egunean euskal kulturaren atal baten hiriburu izan nahi ukan du. Eta, esan ere egingo nuke, horretarako nahiko egoki konpondu dira organizatzaileak.

Hamabostaldia ederra izan da; baina datozen urteetan aurrera jarraitu behar luke eta aurrera ekiteko eskatuko genieke hain egoki lan egin duten elkar-teei. LIZARDI. ALPINO UZTURRE eta OARGI-k emanik dituzte noski izerdi ederrak hau dena antolatzen.

Egindakoak onak izan baldin badira, hobeagoak izan behar dute ondorengo urteetakoek, beti bait dago hasitakoa aberasteko erarik. Aurtengoak eman dien eskarmenduarekin Hamabostaldiak ez du noski datorren urtean ezer galduko, eta guk denok zerbait onik izango dugu berriz ere. Eskerrak eratzaila guziori eta, bereiziki, guzien zirikatzaile izan den Axentxio Hondarzabal-i!

JOSEBA INTXAUSTI